

# La Encartada txapel fabrika



## Udalerria:

Balmaseda.

## Tokia:

El Peñueco auzoa.

## Nola heldu:

Balmasedako saihesbidea hartuta, Villasana de Menarantz, ezkerretara dagoen lehenengo desbideratetik El Peñueco auzora iritsiko gara eta fabrika bertan dago (ondo seinaleztaturik).

## Bisitak egiteko ordutegia:

Oraingoz, harik eta museo bihurtu arte, barrualdea ezin daiteke ikusi.

## Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

San Severinoren eliza. San Severino plaza, 1.

Udaletxea. San Severino plaza.

Urrutia jauregia. K/ Correría, 36.

Muzako zubia. San Lorenzo auzoa.

Buniel edo Horcasitas jauregia. K/ Martín Mendía, 14.

Hiriko alde zaharra.

La Encartada txapel fabrika Balmasedako hirigunetik kanpo dago, El Peñueco auzoan. Fabrika hori herri horretako indianoa izandako Marcos Arena Bermejillo jaunaren ekimenez sortu zen, hori Mexikon aberastu baitzen. 1892an, Bilboko Santo López de Letona eta Domingo de Otaola industriariek eta Balmasedako Martín Mendia eta Juan Bautista Hernándezekin, bere jaioterriko toki horretan artilearen arloan ziharduen fabrika sortu zuen, hain zuzen ere, txapelak egiten ziharduen fabrika. Hasierako 500.000 pezetako kapitalarekin, irin-errota zahar baten kokalekua aukeratu eta, bertan, gaur egunera arte iritsi den industri multzoa ireki zuten. Itxi arte produkzio integraleko lerroa mantendu zuen; lehengai gordina eskuratu eta hori irun egiten zuten; gero, txapelak (produktu nagusia) eta mantak egiten zituzten, baina mantan produkzioak bizitza laburra izan zuen; XX. mendeko lehenengo hamarkadetan inauguratu eta Gerra Zibilaren azkenean bertan behera utzi zuten, beste zenbait gauzaren produkzioarekin batera, adibidez, bufandak edo buru-berokiak.

Gaur egun, bere ondare interes handia kontuan hartuz, Aldundiak eta Balmasedako Udaletxeak multzo osoa berriztatu eta Euskal Herriko industri egintzaren museo bizi legez suspertu dute.

## Fabrika

Multzoa, gaur egun, zenbait eraikinek osatzen dute; horien artean, fabrika bera ez ezik, bertako langileak bizitzeko egin ziren etxeak ere aipatu behar dira: fabrikaren ondoan dauden zenbait solairutako etxebizitzak (1892-94) eta BI-630 errepidearen ondoan lerrokaturiko multzoa, sei etxebizitzako blokeak sortua (XX. mendearen hasiera); horri itsatsita, kapera bat dago, eta kapera horretan auzoko eskola ere jarri zen, mende erdira arte. Gainera, arduradunaren etxebizitza ere egon zen.

Fabrikaren pabilioiek multzo trinkoa osatzen dute, lau solairuko bloke angeluzuzenak osaturiko multzoa; horren alboetan itsatsita, zeharretara kokaturiko sei hormarte daude, altuera txikiagokoak. Kanpoko paramentuek argiztapenerako leiho handiak dituzte. Barrualdetik, oinarriko antolaketa arabera, beheko solairuan biltegia, tailer mekanikoa, artilearen hasierako tratamenduak (garbitu, koipeak kendu...) eta beste lan "zikin" batzuk (tindatu, batanatu) zeuden; lehenengo solairuan, berriz, jantzigintzari loturiko atalak eta bulegoak zeuden. Goiko solairuan zenbait erabilera zeuden: sarbideko aurrealdean, zuzendari gerentearen etxea zegoen (gehienetan Arena familiako kidea), baita estalitako terraza txikia ere; solairuaren gainerako zatian, bestalde, akabera, paketatze, enbalatze eta produktua ateratzeko atalak zeuden. Barruko zirkulaziorako karga-jasogailua zegoen eta horrek hiru solairuak lotzen zituen.

## Makinak

La Encartada fabrikan, balio handiko makinak daude, neurri handi batean, gainera, garai hartako jatorrizko makinak (XIX. mendearen azkenekoak). Lanetarako, turbina hidraulikoa erabili da beti, Cadagua ibaitik ateratako deribazioko kanal baten bitartez elikatuta. Gaur egun, turbina Voith etxeko Francis turbina da (1910), eta horrek 1892ko lehenengo turbina horizontala ordeztu zuen. Horri esker, argiztapenerako eremate elektriko emateaz gain, lohizatuak bideratzen ziren eta horiek, euren polea eta uhalekin, fabrikaziorako makina guztiak mugitzen zituzten.

Oro har, multzo mekanikoa ondo kontserbatua dago; zalantzarik gabe, zenbait elementu berezi aipatzekoak dira, esate baterako, mando-selfatinoa, 1852ko irun-makina, Ingalaterrako Platt Brothers etxetik iritsitakoa, baita jatorrizko injinerutzako gainerako makinak ere (desmuntatzeko makina, batuarra, kardak, etab.), baina Frantziako teknologia ere badago (dinamoa, karda batzuk). Mانتan atalean, fabrika sortu eta handik urte batzuetara sorturiko atalean alegia, jaquard ehungailu handi bi aipa daitezke (bata alemana eta bestea katalana), eta batez ere Belgikatik iritsitako gainerako makinak ere bai.

La Encartada, zalantzarik gabe, adibide berezia da Bizkaiko industri panoramaren barruan. Beste alde batetik, lurraldean ordezkaritza handirik ez duen industri sektorea jasotzen du, artilearen ehungintza, fabriken aro berriko aurrerakuntza teknikoen ezarkuntzaren eragilea izandako sektorea. Bestalde, eta are interesgarriagoa dena, sortu zenetik bertatik ia aldatu gabe mantendu da, eta bertako kokalekuak, langileen koloniak, lohizatuen sistemak eta makinek antzinako giroa sortzen dute, industri iraultzaren hasierara daramatzen giroa, hain zuzen ere, garai horretako museo bizia baillitza.



**Bizkaiko Foru Aldundia**

Kultura Saila  
Ondare Historikoko  
Zerbitzua

**Diputación Foral de Bizkaia**

Departamento de Cultura  
Servicio de Patrimonio  
Histórico